

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Lanpostuen zerrenda aldatzea

Euskal funtzio publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, argitaratu egiten da udalbatzak 2020ko azaroaren 19ko bilkuran onetsitako lanpostu zerrendaren aldaketa partziala. Hona hemen zehaztasunak:

Lehenengoa. Onestea udal honetako lanpostuen zerrendaren aldaketa, Administrazio Orokorreko teknikari plaza bat sortzekoa, espedientean dagoen dokumentazioan adierazitako eginkizunekin. Plaza horren ezaugarrien laburpena:

– Administrazio Orokorreko Teknikari plaza, Idazkaritzako unitate organikoari atxikia, betetzeko sistema lehiaketa-oposizioa izango duena, A1 taldekoa, titulazioaren eskakizuna: lizentziatura edo gradua Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian, 3. Hizkuntza eskakizuna, 24. destino-osagarriarekin eta 17.255,00 euroko berariazko osagarriarekin.

Bigarrena. Lanpostuen zerrendaren aldaketa hau ALHAOn eta udalaren web orrian argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/98 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena. Horren kopia bat bidaltzea Estatuko Administrazioari eta Euskal Autonomia Erki-degoko organo eskudunari.

Arespalditza, 2021eko urtarrilaren 27a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA